

Erakusketa honek artista nafarren zikloa itxiko du.

# Carlos Canovas argazkilariaren erakusketa zabaldu da Iruñean

## Artista nafarraren azken 10 urteotako lana ikusgai Nafarroako Museoan

**Carlos Canovas nafar argazkilariaren erakusketa zabaldu zen herenegun Nafarroako Museoan eta abenduaren bukaera arte egonen da ikusgai. Bilduma horrekin bukatuko da Museoak bizirik dauden nafar artistei buruz aurten prestatu duen programazioa.**

**IRUÑEA**

Erakusketa osatzen duten koadroak artistak azken hamar urte hauetan egindako lanak dira, atal desberdinetan banaturik. 'Harresiaren Bestaldea' izeneko atala zabalena da, Iruñea inguruan aurkitu dituen gauza interesgarrien bilduma eginez. Beste hiru sailak, 'Paisaia Urrunak', 'Ahanzturaren Landareak' eta 'Landare Mingarriak' izenekoak aurkeztu zituen.

Canovas berak esan zuenez, ikusgai dauden obrak argazkietan agertzen diren gauzen deskribapena baino gehiago dira. «Hautaketa egitea jarrera moral zehatza da, eskena eta irudi horiek aukeratzea estetika baten aldeko joera garbia hartzen duzula esan nahi du», azaldu zuen artistak. Bere kasuan, miseriaren estetika izan da hautatu duena, eta argazkiekin pobrezia hori 'edertzeko' aukera izan duela aitortu zuen.

Bere argazkietan ez dira sekula pertsonak agertzen, «sartzen diren guztietan ikuslearen arreta beti pertsonetara doa.

Nere kasuan, ez dut nahi ikuslearen arreta desbideratzen duen gauzaren bat jartzea, pertsona bat ipiniz gero denok hara begiratuko bait genuke», adierazi zuen Canovasek. Horren ondorioz, Carlos Canovasen lanean nostalgia kutsua somatzen da, tristezia batzutan, jendearen aldakuntzak aldatzen ez dituen paisaietan.

IRAGARKI MERKEAK (943) 46 90 22

BERBA
LOGOPEDIAKO GABINETEA
HIZKUNTZ ETA HIZKETA ARAZOAK ZUZENTZEN DITUGU
Manuel Allende, 23-1.A
48010 BILBO
Tfna.: 410 02 92

34x8,5mm
EGUN BAT 420pta/21l.
ASTEBETE 2.080pta/104l.
BI ASTE 3.600pta/180l.
HILABETE 5.500pta/275l.

MAROKKO
Abenduak 25 - Urtarrilak 5
AUTOKAR-LITERA / PREZIOA: 31.500
Tfna.: (943) 65.13.74-9

34x17mm
EGUN BAT 840pta/42l.
ASTEBETE 4.160pta/208l.
BI ASTE 7.200pta/360l.
HILABETE 10.100pta/505l.

34x37mm
34x37 MODULOA
EGUN BAT 1.680pta/84l.
ASTEBETE 8.320pta/416l.
BI ASTE 14.400pta/720l.
HILABETE 20.200pta/1.010l.

oskorri
ELKAR osoa COMPACT disc DIGITAL AUDIO
zure ohizko disko dendan




HEGOAMERIKA
AIRE-TARIFAK MADRILETIK

| 91/12/15a arte | | 91/12/15etik aurrera |
|---|---|---|
| 119.500 | MEXICO | 132.500 |
| 139.500 | GUATEMALA | 145.700 |
| 139.500 | COSTA RICA | 145.700 |
| 139.500 | MANAGUA | 145.700 |
| 139.500 | PANAMA | 145.700 |
| 112.700 | PUERTO RICO | 119.300 |
| 119.300 | SANTO DOMINGO | 132.500 |
| 119.300 | CARACAS | 125.900 |
| 125.900 | BOGOTA | 132.500 |
| 142.800 | GUAYAQUIL | 155.900 |
| 145.000 | LIMA | 159.000 |
| 192.200 | BOLIVIA | 198.800 |
| 181.900 | TXILE | 188.300 |
| | BUENOS AIRES | 167.200 |
| | MENDOZA | 174.400 |

OHARRA: Ezeztapen oro 5.000 pta. kostatuko da. Ezein Aldaketa 3.000 pta.

Viajes TXINDOKI, S.A.
FRANZISKO GAZKUE, 1 / Telf.: 52 45 12 / 20100 ERRENTERIA
ETXAGUE GENERALA, 14 / Telf.: 42 38 84 / 20003 DONOSTIA
URDANETA, 11 Behea / Telf.: 88 72 00 / ORDIZIA
LEGAZPI, 8 Behea / Telf.: 72 37 76 / ZUMARRAGA

Azpeitiko IX. Euskal Antzerki Topaketak

# 'Berantenaz seietan' Bordaxuri taldeko azken antzezkizuna gaur

**AZPEITIA**

Atzoko etenaldia eta gero, Azpeitiko IX Antzerki Topaketak berriro heltzen dio gaur emankizun egitarauari. Gaueko 9.30etatik aurrera eta Zelaitxo antzokian Bordaxuri talde lapurtarrak bere azken muntaia taularatuko du. 'Berantenaz seietan' izenburua duen ikuskizuna Jean-Marie Broucaret zuzenduko du. Testua Marc Perrier idazlearen lararekin Janine Urrutik egindako moldaketa da eta Besteak beste aktore nagusiak Txomin Hegi eta Pantxoa Cousteau dira. Obra hau lehengo apirilean estreinatu zen. Apirilaren 14ean, hain zuzen, Galarrotsak 91ko antzerki ihardunaldietan.



Cousteau eta Hegi.

**GETXON HIRU TALDE**

Getxoko IX Antzerki Ihardunaldietan, berriz, hiru muntaia aurkeztuko dira gaur. Tira ta Floja taldeko kale ikuskizuna, Pikorren 'Nor da da' eta Udaberri konpainiaren 'Brindemos' izeneko estreinaldia. Bihar amaituko dira lehengo asteartean hasitako ihardunaldiok.



**POUMEYROLen erakusketa Angelun.** Udal liburutegian dagoen Georges Pompidou izeneko Galerian Jean-Marie Poumeyrolen obrak ikusgai dira datorren urtarrilaren 25a arte, asteartetik larunbata arte. Klima tropikal heze bero baten antzekoa den arteo honek bidaia bat baino gehiagotara gonbidatzen du.